Administraciones y el resto de Administraciones Públicas.



2.2. Betebehar orokorrak, espezifikoak eta funtzioak

2.2. Obligaciones generales, específicas y funciones

2.2.1. Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabiltzen duten erakundeek betebehar orokorrak

2.2.1. Obligaciones generales de las entidades usuarias del nodo de Interoperabilidad de Bizkaia

- Atxikitako zerbitzuen errendimendu probak eta monitorizazio probak gauzatea horien eskuragarritasuna bermatzeko.
- Zerbitzua zuzen erabiltzea, bakarrik baimena duen horretarako erabiliz.
- Zerbitzuen parte diren elementu aktiboak kudeatu eta mantentzea, zerbitzu horiek emateari eragiten dioten gorabeherak jakinaraziz.
- Zerbitzuaren jarraikortasuna bermatzeko beharrezko euskarria mantentzea, arduradunen eta euskarri zentroen kontaktu operatiboak emanez, jakinaraziz eta eguneratuz.
- Gorabeherak detektatzen, diagnostikatzen eta ebazten laguntzea, hala dagokionean gorabeherak ebazteko denbora murriztea bermatzen duten jarduketak txertatuz.

- Realización de pruebas de rendimiento y de monitorización de los servicios asociados para asegurar la disponibilidad de los mismos.
- Hacer un uso correcto del servicio, empleándolo exclusivamente para aquello a lo que está autorizada.
- Gestionar y mantener los elementos activos que forman parte de los servicios, comunicando las incidencias que afecten a la prestación de los mismos.
- Mantener el soporte necesario para garantizar la continuidad del servicio, proporcionando, notificando y actualizando los contactos operativos, tanto de los responsables, como de los centros de soporte correspondientes.
- Colaborar en la detección, diagnóstico y resolución de las incidencias, incluyendo en su caso la realización de actuaciones que aseguren la reducción del tiempo de resolución de las incidencias.



- Aplikazioen administrazioen eta erabiltzaileen sistemen prozesuak bateratzeko ezarritako prozedurak jarraitzea.
- Informazioa eta atxikitako sistemak behar bezala babesteko beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartzea eta betetzea, ezartzen den Segurtasun Komuneke Politika bere gain hartuz.
- Zerbitzuak emateko beharrezkoa den informazio legezkoa, administratiboa eta teknikoa deskribatzen duten dokumentuak eguneratzen laguntzea, baita herritarrek jakin beharreko beste edozein informazio ere.
- Seguir los procedimientos establecidos para armonizar los procesos de administración de aplicaciones y sistemas usuarios.
- Adoptar y cumplir las medidas de seguridad necesarias para proteger debidamente la información y los sistemas asociados, adoptando la Política de Seguridad Común que se establezca.
- Colaborar en la actualización de los documentos que describan la información legal, administrativa y técnica necesaria para la prestación de los servicios, así como cualquier otra información que deba ser conocida por la ciudadanía.

2.2.2. Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren funtzioak


Bizkaiko Foru Aldundia Bizkaiko Lurralde Historikoko Elkarreragingarritasun Nodoan eratu da, eta honako funtzio eta ardurak izango ditu:

- Lagatzaile bakoitzarentzat ezarritako baldintzen arabera zesiiodunak eta errekeritzaileak kudeatuko ditu.
- Ez du gordeko datuen trukatzeko transakzioetatik eratorritako herritarren informazio pertsonalik.
- Dagozkion mekanismoen bitartez trukaturako informazioaren konfidentzialtasuna eta integritatea bermatuko du.
- Sistema 24x7 funtzionamenduan egotea sustatuko du.
- Erakundeei babesa emango die eta errekeritzaile eta igorleekin lankidetzan aritzearren sortutako jakinarazpen eta gorabehera guztiak kudeatuko ditu.
- Erabiltzaileei eta integratzaileei arreta emateko zentroa mantenduko du (sistemari dagozkion gorabehera guztiak bideratuko ditu) eta kontaktuen datuei buruzko informazioa emango du.
- Jarduera eta plataformaren erabilerari buruzko txostenak egingo ditu erakunde bakoitzetik eta erakunde bakoitzerantz egindako kontsultak kontuan hartuz.

2.2.2. Funciones del Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia

La Diputación Foral de Bizkaia se constituirá en nodo de Interoperabilidad del Territorio Histórico de Bizkaia, asumiendo las siguientes funciones y responsabilidades:

- Gestionará los Cesionarios y Requirentes según las condiciones establecidas por cada Cedente.
- No almacenará información personal de ningún ciudadano o ciudadana derivada de cualquier transacción de intercambio de datos.
- Asegurará la confidencialidad e integridad de la información intercambiada a través de los mecanismos correspondientes.
- Promoverá que el sistema esté en funcionamiento 24x7.
- Dará soporte a las organizaciones y gestionará todas las comunicaciones e incidencias producidas colaborando con Requirentes y Emisores.
- Mantendrá un centro de atención a usuarios e integradores que canalizará todas las incidencias relativas al sistema e informará sobre los datos de contacto del mismo.
- Elaborará informes de actividad y uso de la Plataforma, considerando las consultas realizadas desde y hacia cada organización.





- Bere sistemak garatu eta mantenduko ditu datuen segurtasun eta pribatutasuna bermatzeko aplikatu beharreko araudiari jarraiki.
- Igorleak edo lagatzaileak hala eskatu eta definitzen duenean ikuskaritza lanetan lagunduko du, adosten diren trazabilitate datuak eta datu estatistikoak kontserbatuz, beharrezkoa denean horien sarbidea ahalbidetuz eta sistemak aurrera eramandako eragiketen sekuentzia erreproduzitzea baimenduz.
- www.bizkaia.eus korporazio atariaren barnean informazio webgune bat mantenduko du, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoarekin zerikusia duen dokumentazio guztia jasoz. Bertan argitaratuko da une bakoitzean beharrezkoa den informazioa, eta edonola ere, hauek:
 - Erakunde ezberdinetan eskuragarri dauden datuen elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoa, hauek barne izango dituen: Zerbitzu horiek eskuratzeko protokoloak, baimendutako kontsulta metodoak, garrantzitsua den informazio teknikoa eta errekeritzaile bakoitzari eskatzen zaion informazioa.
 - Elkarreragingarritasun zerbitzuak lortzeko eskariaren formularioa.
 - Erabiltzaile eta integratzaileen arreta zentrorako sarbidea.
 - Gorabeherei buruzko informazioa.
 - Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko berriak.
- Evolucionará y mantendrá sus sistemas garantizando la seguridad y privacidad de los datos acorde a la normativa aplicable.
- Colaborará en las labores de auditoría siempre que el Emisor o el Cedente así lo requiera y defina, conservando los datos de trazabilidad y estadísticos que se acuerden, proporcionando acceso a los mismos cuando sea necesario y permitiendo reproducir la secuencia de operaciones llevadas a cabo por el sistema
- Mantendrá un portal web informativo dentro del portal corporativo (www.bizkaia.eus) con toda la documentación relativa al nodo de Interoperabilidad de Bizkaia donde publicará la información entendida como necesaria en cada momento y, en todo caso:
 - El catálogo de servicios de interoperabilidad de datos disponibles por parte de las diferentes organizaciones, incluyendo: los protocolos de acceso a dichos servicios, los métodos de consulta permitidos, la información técnica relevante, así como la información que se requiere de cada Requirente.
 - Acceso al formulario de solicitud de acceso a los servicios de interoperabilidad.
 - Acceso al centro de atención a usuarios e integradores.
 - Información de incidencias.
 - Novedades en los servicios ofertados por el nodo de Interoperabilidad de Bizkaia

2.2.3. Lagatzaile eta zesiiodunen eginkizunak
Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoak erakunde erabiltzaileak datuen lagatzaile izateko aukera ematen du, eta horrez gain, beste administrazio publiko batzuetako datuen zesiiodun ere izan ahal dira.

Lagatzaile diren heinean, hauek egin beharko dituzte:

- Katalogoarentzat edo eskuragarri dauden datuen trukatzeko zerbitzuen erregistroarentzat informazioa ematea, horiek kontsultatu ahal izateko.

2.2.3. Roles de Cedentes y Cesionarios

El nodo de Interoperabilidad de Bizkaia posibilita que las entidades usuarias puedan ser Cedentes de sus datos y Cesionarias de los datos de otras Administraciones Públicas.

En tanto que Cedente, deberán:

- Facilitar la información para el catálogo o registro de sus servicios de intercambio de datos disponibles para su consulta.



- Zerbitzuetara sarbidea izateko baimenei dagokienez:
 - Eskaintzen dituzten datuen trukatzeko zerbitzuetara sarbidea izateko protokoloak eta baldintzak ezartzea.
 - Baimendutako kontsulta metodoak eta errekeritzaile bakoitzari buruz ezagutu beharreko informazioa ezartzea.
 - Eskari bat ukatu edo ezetsi duten kasuak justifikatzea.
 - Entzunaldi politika definitzea eta aldizka bertako datuak kontsultatzeari buruzko sistemaren erabilerari dagozkion entzunaldiak gauzatzea.
- Respecto a las autorizaciones de acceso a los servicios:
 - Establecer los protocolos y condiciones de acceso a los servicios de intercambio de datos que ofrecen.
 - Establecer los métodos de consulta permitidos así como la información a conocer de cada Requirente.
 - Justificar los casos de rechazo o denegación de una solicitud.
 - Definir la política de auditoría y realizar auditorías periódicas sobre el uso del sistema relativo a la consulta de sus datos.


Zeregin horiek igorleari edo elkarreragingarritasun nodo bati eskuordetu ahal izango zaizkio.

Podrán delegar estas tareas en el Emisor o en un nodo de interoperabilidad.

Zesiodun diren heinean, hauek egin beharko dituzte:

En tanto que Cesionaria, deberán:

- Lagatzaileak baimendutako izapideekin eta prozedurekin harremana duen informazioa beti eskatzea, prozedura administratibo esparruaren barnean.
- Lagatzaileak ezarritako datuen sarbiderako baldintzak betetzea.
- Interesatuaren adostasuna eskatzea, legeak horretarako salbuesten duenean ez ezik, eta dagokion espedientearen alorrean sistemak emandako erantzuna islatzea.
- Kontsulta bakoitzetik jasotako informazioa erabiltzea kasu bakoitzean dagokion helbururako, kontsulta bat behar haina aldiz gauzatuz eta kontsultaren erreferentziaren izapideak eskatutakoa betez eta ez betetzeetatik eratorri litezkeen ardurak berariaz bere gain hartuz.
- Hala eskatzen denean entzunaldi lanetan laguntzea, kontsultak kontrolatzeko beharrezkoa den informazioa edo agiriak lagatzaileari eskuragarri jarritz.
- Solicitar información siempre en relación con los trámites y procedimientos autorizados por el cedente y dentro del marco de un procedimiento administrativo.
- Cumplir las condiciones de acceso a los datos establecidas por el Cedente.
- Recabar el consentimiento de la persona interesada, salvo que una ley le exima de ello, y reflejar la respuesta obtenida del sistema en el ámbito del expediente correspondiente.
- Utilizar la información obtenida de cada consulta para la finalidad que corresponda en cada caso, realizando una misma consulta tantas veces como sea necesario y lo requiera el trámite a que se refiera la consulta, asumiendo expresamente la responsabilidad que pudiera derivar de posibles incumplimientos.
- Colaborar en las labores de auditoría cuando sea requerido para ello, facilitando al Cedente la información o documentos necesarios para el control de las consultas.





2.2.4. Igorle eta errekeritzaileen eginkizunak Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren erabiltzaile diren erakundeak, ikuspuntu teknologikotik lagapenaren edo datuen kontsultaren bideratzaile diren heinean, beraien kabuz edo hirugarrenen bitartez hartuko dituzte Datuen Bitartekaritza Protokoloen Elkarreragingarritasun Arau Teknikoan igorle eta errekeritzaileentzat definitutako funtzioak eta ardurak; arau tekniko hori Administrazio Publikoen Estatuko Idazkaritzaren 2012ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bitartez onetsi zen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren igorle eta errekeritzaile funtzioak betetzea Lantik, S.A.ri agindu ahal izango dio Bizkaiko Foru Aldundiak berak. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta horren menpeko diren eskubide publikoko organismo eta erakundeetako tokiko erakunde interesatuen igorle eta errekeritzaile funtzioak Biscaytik fundazioaren esku utzi ahal izango dituzte.

3. BALDINTZA TEKNIKO ETA FUNTZIONALAK

Informazioaren hornidura gauzatzeko Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalan eta bere garapen arauetan zehaztutako baldintza teknikoak eta funtzionalak kontuan hartuko dira, eta bereziki Datuen Bitartekaritzako Protokoloen Elkarreragingarritasun Arau Teknikoa kontuan hartuko da, Administrazio Publikoen Estatuko Idazkaritzak 2012ko ekainaren 28ko ebazpenaren bitartez onetsi zuena.

4. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

4.1 Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren ezaugarriak.

Bizkaiko Elkarreragingarritasun nodoa Bizkaiko Lurralde Historikoko Administrazio Publikoen zerbitzura jarritako plataforma da, bai beste administrazio publiko batzuei datuak emateko, baita beste administrazio batzuetako datuak modu seguruan kontsultatzeko ere.

2.2.4. Roles de Emisores y Requirentes

Las entidades usuarias del nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, como facilitadoras de la cesión o consulta de datos desde el punto de vista tecnológico, asumirán, por sí o a través de terceras, las funciones y responsabilidades definidas para los Emisores y Requirentes en la Norma Técnica de Interoperabilidad de Protocolos de Intermediación de datos, aprobada mediante Resolución de 28 de junio de 2012, de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas.

Las funciones de Emisor y Requirente de la Diputación Foral de Bizkaia podrán ser encomendadas por ésta a la sociedad pública Lantik, S.A. Asimismo las funciones de Emisor y Requirente de las Entidades Locales interesadas del Territorio Histórico de Bizkaia y los organismos y entidades de derecho público dependientes de las mismas podrán ser encomendadas por éstas a la Fundación Biscaytik.

3. CONDICIONES TÉCNICAS Y FUNCIONALES

El suministro de información se realizará según las condiciones técnicas y funcionales establecidas en el Esquema Nacional de Interoperabilidad y sus normas de desarrollo, y, en especial, en la Norma Técnica de Interoperabilidad de protocolos de intermediación de datos, aprobada mediante Resolución de 28 de junio de 2012, de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas

4. ESPECIFICACIONES TÉCNICAS

4.1 Características del nodo de Interoperabilidad de Bizkaia.

El nodo de Interoperabilidad de Bizkaia es una plataforma puesta al servicio de las Administraciones Públicas del Territorio Histórico de Bizkaia tanto para proveer datos a otras Administraciones Públicas como para consultar datos de otras, de forma segura.



Osagarri zentral bakarra du (nukleoa), Zerbitzuen ESB Bus batean oinarrituta, eta bertan argitaratzen dira informazioa trukatzeko zerbitzuak.

Dispone de un componente central único (núcleo), basado en un ESB Bus de Servicios, donde se publican los servicios de intercambio de información.

4.2 Nodora sarbidea izateko moduak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko interesa duten administrazio publikoek nodoaren zerbitzuak eskuratu ahal izateko kasu bakoitzean segurizatu eta adostutako komunikazio sareak erabiliko dira. Horiei esker Bizkaiko Foru Aldundiaren barneko sarera sartu ahal izango dira une bakoitzean eskatutako segurtasun protokoloak mantenduz, eta hala, Bizkaiko Foru Aldundiak Euskadiko Administrazio Publikoen (NISAE) datuen bitartekaritza nodoarekin bitartekaritza lanak egingo ditu Euskal Sarea deituriko sarearen bitartez.

4.2 Modo de acceso al nodo.

El acceso a los servicios del nodo por parte de las Administraciones Públicas interesadas del Territorio Histórico de Bizkaia se realizará mediante las redes de comunicaciones securizadas y acordadas en cada caso, que permitan el acceso a la red interna de la Diputación Foral de Bizkaia bajo los protocolos de seguridad requeridos en cada momento, quién intermediará a través de la Red EuskalSarea con el nodo de intermediación de datos de las Administraciones Públicas de Euskadi (NISAE).

Aurreko paragrafoan aipatu ez diren administrazio publikoak Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren zerbitzuetara sarbidea izateko Euskal Sarea deituriko sarea erabiliko da, edo bestela, une bakoitzean zehaztu ahal izango diren administrazioen arteko komunikazio seguruko sare baliokideak erabiliko dira.

El acceso a los servicios del nodo de Interoperabilidad de Bizkaia por parte de las Administraciones Públicas no citadas en el párrafo anterior, se realizará desde la red Euskal Sarea, o desde las redes equivalentes de comunicación segura entre Administraciones que pudieran determinarse en cada momento.


4.3 Segurtasunari buruzko zehaztapenak

Trukatutako informazioaren kritikotasuna dela eta, segurtasun, konfidentzialtasun eta datuen babeserako berme osoak ziurtatzeko, honako zehaztapenak beteko dira:

4.3 Especificaciones de seguridad

Debido a la criticidad de la información intercambiada, para asegurar plenas garantías de seguridad, confidencialidad y protección de datos se cumplirán las siguientes especificaciones:

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta/edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Autentifikazioa: Indarrean dagoen legerian jasotako identifikazio sisteman bitartez zerbitzura sartu diren erabiltzaileak identifikatzea.
- Baimenak kudeatzea: Enplegatu publikoek eta horien organismoek izango dute baimena bakarrik, eta soilik baimena jaso duten kontsultak egin ahal izango dituzte. Kudeaketa hori BFAren zentralizatutako segurtasun sistemen
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y/o en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
- Autenticación: identificación de los usuarios que acceden al servicio mediante sistemas de identificación recogidos en la legislación vigente.
- Gestión de autorizaciones: Sólo se dará acceso a las personas empleadas públicos y sus organismos, y sólo para realizar aquellas consultas para las que han sido habilitadas. Esta gestión se realizará mediante los sistemas de





bitartez gauzatuko da.

- Sinadura elektronikoa: Eskari guztiak ziurtagiri elektronikoarekin (X509 v3) sinatuta (XMLSignature edo WS-Security) egongo dira.
- Trazabilitatea: Sistemak egindako kontsulta guztiak erregistratuko ditu, eta beti identifikatuko ditu enplegatu publikoa eta/edo aplikazioa, kontsultaren unea eta kontsultaren xedea.
- Konfidentzialtasuna: Sistemak bermatu egingo du trukaturako datu guztien konfidentzialtasuna. Organismo ezberdinen artean egiten diren jakinarazpen guztiak https (SSL) protokoloa erabiliz gauzatuko dira eta Euskal Sarea deituriko sareak datuen zifratuan neurri osagarriak emango ditu zati nagusian.
- Integritatea: Egiten diren kontsulta guztiak eta horien erantzunak elektronikoki sinatuko dira trukaturako datuen integritatea, esku hartzen duten alderdien izaera eta kontsultaren ez arbuizatzea bermatzeko.
- Entzunaldirako aukera: Eskari bakoitza eta dagokion erantzuna sisteman erregistratzen dira, dagokion sinadura elektronikoarekin batera. Eskari guztiak identifikatzaile batekin identifikatuta egongo dira, eta horri esker, zerbitzuaren balizko erreklamazioak edo entzunaldiak direla-eta eskariak berreskuratzeko aukera egongo da.
- Entzunaldia: Elkarreragingarritasun plataformak entzunaldi modulu bat izango du, eta bertan erregistratuko dira egindako eskari guztiak. Behar bezala baimendutako eta ziurtatutako pertsonak bakarrik eskuratu ahal izango dituzte plataformaren entzunaldiko funtzionalitateak.
- Informazioaren kalitatea: Datuen kalitatearen arduraduna datuak gordetzen dituen organismoa izango da.
- Segurtasun komuneko politikak: Eskainitako informazioa eta bitartekaritza zerbitzuak behar bezala babesteko
- seguridad centralizados de DFB.
- Firma electrónica: Todas las peticiones irán firmadas (XMLSignature o WS-Security) con certificado electrónico (X509 v3).
- Trazabilidad: El sistema registrará todas las consultas realizadas, identificando siempre a la persona empleada pública y/o aplicación, el momento de dicha consulta y la finalidad con la que se han realizado.
- Confidencialidad: El sistema garantizará la confidencialidad de los datos intercambiados. Todas las comunicaciones que se realicen entre distintos organismos se realizarán sobre protocolo https (SSL) proporcionando además la red EuskalSarea, en el tramo troncal, medidas adicionales de cifrado de datos.
- Integridad: Todas las consultas que se realicen, así como las respuestas que se devuelvan, serán firmadas electrónicamente para garantizar tanto la integridad de los datos intercambiados como la identidad de las partes que intervienen y el no repudio de la consulta.
- Auditabilidad: Cada petición y su correspondiente respuesta se registra en el sistema con la consiguiente firma electrónica. Todas las peticiones van identificadas con un identificador único, que permite su posterior recuperación ante posibles reclamaciones o auditorías del servicio.
- Auditoría: La plataforma de interoperabilidad dispondrá de un módulo de auditoría, en el que quedarán registrados todas las peticiones realizadas. Sólo las personas debidamente autorizadas y acreditadas podrán acceder a las funcionalidades de auditoría de la plataforma.
- Calidad de la información: La calidad de los datos será responsabilidad del organismo que los custodia.
- Política de seguridad común: las medidas de seguridad necesarias para proteger debidamente la información y los



beharrezko segurtasun neurriak hauen arabera definituko dira:

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeari, urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuaren arabera Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalak markatutako irizpide eta aholkuen arabera, administrazio publikoen artean informazio elektronikoen elkarreragingarritasunari eta trukaketari eta urtarrilaren 8ko 3/210 Errege Dekretuak araututako (horrek zehazten du baliabide elektronikoak erabiltzean aplikatu beharreko segurtasun politika) Segurtasuneko Eskema Nazionalari dagokion araudia betetzea.
- Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari dagokion araudia betetzea, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta bere garapenerako araudiarekin edo hori etorkizunean osatu edo ordeztzen duen araudiarekin bat eginez.
- BFAren segurtasun moduluaren azpisistemak eratzen dituzten protokoloak betetzea: Sarbide kontrola, pribatutasuna, entzunaldia, agiriak kudeatzea eta integritatea.

4.4 Erabilgarritasunari dagozkion zehaztapenak

Elkarreragingarritasun Nodoa asteko 7 egunetan eta eguneko 24 orduetan erabilgarri egotea sustatuko da. Organismo lagatzaileek erabilgarritasun bera izan beharko dute beraien sistema edo plataformetan.

servicios de intermediación ofrecidos se definirán sobre:

- Cumplimiento de la legislación vigente en relación a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como a la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, a la interoperabilidad y al intercambio de información electrónica entre administraciones públicas, en función de los criterios y recomendaciones marcadas por el Esquema Nacional de Interoperabilidad (ENI), según el RD 4/2010 de 8 de enero y el Esquema Nacional de Seguridad (ENS) regulado por el RD 3/210 de 8 de enero que determina la política de seguridad que se ha de aplicar en la utilización de los medios electrónicos.
- Cumplimiento de la normativa de Protección de Datos de Carácter Personal, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y su normativa de desarrollo, o normativa que la complemente o sustituya en el futuro.
- Cumplimiento de los protocolos que componen los diferentes subsistemas pertenecientes al módulo de seguridad de la DFB: Control de acceso, Privacidad, Auditoría, Gestión de credenciales e Integridad.

4.4 Especificaciones de disponibilidad

Se promoverá que el nodo de interoperabilidad esté disponible los 7 días de la semana las 24 horas del día. Los organismos cedentes deberán contar con la misma disponibilidad en sus sistemas o plataformas.



4.5 Zerbitzu berriak txertatzea

Hitzarmen honi atxikitako administrazioek bitarteko diren datuen multzo berriak txertatu ahal izango dituzte, betiere Bizkaiko Foru Aldundiarekin horretarako koordinatuz. Txertatutako zerbitzu berriak Zerbitzuen Katalogoan eguneratu eta argitaratuko dira eta kasu bakoitzean interesekoak izan daitezkeen organismoei informazioa emango zaie.

4.6 Datuen bitartekari berriak txertatzea

Zerbitzu hau erabiltzen duten Administrazio Publikoek datuen bitartekari propioak eratu ahal izango dituzte, eta kasu horretan Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoarekin konektatuko dira agiri honetan aurreikusitako baldintza eta betebeharrak kontuan hartuz segurtasun eta zerbitzu mailari dagokionez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak konexio hori gauzatzeko ezarri ahal izango dituenak ere kontuan hartuko dira.

4.7 Partida zerbitzuaren mailak

Zerbitzu mailak www.bizkaia.eus webgunean argitaratuko dira.

4.5 Incorporación de nuevos servicios

Las administraciones adheridas al presente convenio podrán incorporar nuevos conjuntos de datos intermediados, siempre de forma coordinada con la Diputación Foral de Bizkaia. Los nuevos servicios incorporados, serán actualizados y publicados en el Catálogo de Servicios, así como también serán informados los organismos que puedan ser de interés en cada caso.

4.6 Incorporación de nuevos intermediadores de datos

Las Administraciones Públicas usuarias de este servicio podrán desarrollar sus propios intermediadores de datos, en cuyo caso se conectarán al nodo de interoperabilidad de Bizkaia atendiendo a los mismos requisitos y obligaciones previstos en este documento en cuanto a seguridad y niveles de servicio y a los que pudiera establecer la Diputación Foral de Bizkaia para la realización de dicha conexión.

4.7 Niveles de servicio de partida

Los niveles de servicio serán publicados en el portal www.bizkaia.eus



II. ERANSKINA: HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROTOKOLOA

ANEXO II: PROTOCOLO DE ADHESIÓN AL CONVENIO

SONDIKAKO UDALA ERAKUNDEA OINARRIZKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO IRTENBIDEAK BATERA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROTOKOLOA, 2017KO MARTXOAREN 24AN SINATUTAKOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK ETA ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK.

PROTOCOLO DE ADHESIÓN DE EL AYUNTAMIENTO DE SONDIKA AL CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SOLUCIONES BÁSICAS DE ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA SUSCRITO EL 24 DE MARZO DE 2017 POR LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO CON LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO.

Xabier Zubiaur Agirre jaunak, Alkatea den heinean eta Sondikako Udala erakundea ordezkatzen duen tokiko ordezkarari moduan,

D. Xabier Zubiaur Agirre en calidad de Alcalde y Representante local en representación del Ayuntamiento de Sondika

ADIERAZI DU:

DECLARA:

Sondikako Udala erakundearen organoak, 2018ko urtarrilaren 17an honako baldintzei atxikitzea erabaki duela, honakoari aplikatu beharreko guztian:

Que, el Ayuntamiento de Sondika ha acordado, con fecha 17 de enero de 2018 solicitar la adhesión en las siguientes condiciones, en todo lo que le sea de aplicación, a:

• 2017ko martxoaren 24an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrek sinatutako lankidetzaren hitzarmena administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko, beraren lehenengo 2 klausularekin bat eginez, 2017ko apirilaren 21ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 76. zenbakian argitaratua.

• El convenio de colaboración suscrito el 24 de marzo de 2017 por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco con la Administración General del Estado para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica, de acuerdo con la cláusula primera 2 del mismo, publicado en el Boletín Oficial del país vasco nº76, de fecha 21 de abril de 2017.

Sondikako Udala erakundeak argi eta garbi ezagutzen eta onartzen ditu atxikitzeari dagokionez aplikatu beharreko hitzarmen guztiak, eta horietan sinatzaileek (bigarren klausulan zerrendatuta daudenak) ematen dituzten bitartekaritza teknologikoko irtenbideen sarbide eta erabilerari buruz zehazten diren betebeharrak betetzeko konpromisoa hartu du. Aurrekoak ez ezik, etorkizunean eguneratu edo aldatu

Que, el Ayuntamiento de Sondika conoce y acepta sin reservas los Convenios en todo lo que le es de aplicación respecto de su adhesión y se compromete al cumplimiento de las obligaciones establecidas en los mismos respecto al acceso y a la utilización de las soluciones tecnológicas de intermediación que prestan sus partes firmantes que están relacionadas en su cláusula segunda, o las que las actualicen o



daitezkeen betebeharrak ere beteko ditu, bere eskumenen alorrean hitzarmen honetan zehazten diren betebeharrak bere gain hartuz.

modifiquen en el futuro, asumiendo, en el ámbito de sus competencias, las obligaciones que se establecen en el Convenio.

Ondorioz,

Y en consecuencia

HAUXE ESKATU DU:

SOLICITA:

Ordezkatzen dudana Sondikako Udala erakundea 2017ko matxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak sinatutako administrazio elektronikoko oinarriko irtenbideak elkarri emateko lankidetzaren hitzarmenean aurreikusitako datuen bitartekaritza zerbitzuetara atxikitzea, agiri horren bigarren klausulan aurreikusitakoari jarraiki.

La adhesión del Ayuntamiento de Sondika, cuya representación ostento, a los servicios de intermediación de datos previstos en el Convenio de colaboración para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica suscrito el 24 de marzo de 2017 entre la Administración General del Estado y la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de acuerdo con lo previsto en su cláusula segunda.

Izp. /Fdo.: Xabier Zubiaur Agirre

Sondikako Udalaren Alkatea /
Alcalde del Ayuntamiento de Sondika